

Euskaltzaindiaren Mintzola deialdia (2023)

euskaraz egiten den ahozko jardunari buruzko
gradu- eta master-amaierako lanak saritzeko

DEIALDIAREN XEDEA

Euskaraz egiten den ahozko jardunari (euskarazko hizkerari) buruzko ikerketa zientifikoa bultzatzeko xedea du Euskaltzaindiak, Mintzola egitasmoaren bidez, Gipuzkoako Foru Aldundiaren eta Eusko Jaurlaritzaren arteko lankidetzagiroaren testuinguruan.

Eguneroko hizkeraren antolaketa formal maila txikienetik hasita, formaltasun mailan gora doazke hizkera antolatua (hitzaldiak, klaseak, albistegiak...), eta ahozko jardun eraikiaren adar berezi bat osatzen dute kulturgintza-adierazpideak osatzen dituzten ahozko tradizioak.

Euskaltzaindiak erabaki du eguneroko hizkeraren galdegaiak erdigunean jartzea, ahozkotasanari helduta, hainbat mailatako ikerketa-jardunak sortuz. Batetik, **abiapuntu**ko **ikerketak**: objektua bera kokatzea, eguneroko hizkeraren ezaugarriak aletzea, euskal komunitateak arlo horretan duen egoera diagnostikatzea. Beste batzuk, aldiz, **ikerketa aplikatu**goak: eguneroko hizkeraren hobekuntzan eragiteko tresnak hezkuntzan, hedabideetan eta bestelako bideetan.

Ikertzaile gaztea edo hasiberria doktorego-tesiraino eramango duen ibilbidean, aurreko erabakiak eta urratsak ere garrantzitsuak dira, eta hori aitortzea, eta unibertsitateko edozein jakintza-alorretatik abiatuta, ondorengo zazpi eremuak oinarrian direla, **euskaraz egiten den ahozko jarduna** ikergai gisa aukeratu izana baloratzea da deialdi honen helburua. Ikergaiak:

1. Eguneroko hizkera informala ezaugarriak eta beronen egoera euskal komunitatean. Oinarriak, corpusa eta diagnostikoa.
2. Euskalkiak eta hizkera estandarra ahozko hizkeraren funtzioetan: praktiken azterketa eta jarraibide batzuk sortzeko oinarriak.
3. Eguneroko hizkerarako adierazkortasun baliabideak hezkuntza arautuan lantzeko bideak eta formulak.
4. Aisialdi antolatuan eta hezkuntza ez-arautuan adierazkortasun baliabideak lantzeko bideak eta formulak.
5. Eguneroko hizkerarako adierazkortasun baliabideak hedabideetatik eta ingurune digitaletik sustatzeko bideak eta formulak.

6. Eguneroko hizkerarako adierazkortasun baliabideak lantzeko bestelako bideak.
7. Hitanoa lantzeko eta hedatzeko bideak eta formulak.

Zazpi eremu horiek lehentasunezko zatitatu dituzte Euskaltzaindiak, baina, oro har, euskaraz egiten diren ahozko jardunari buruzko ikerketa lanak ere saritu ahalko dira.

Lehenengo urratsen garrantziaz oharturik, hain justu, gradu- eta master-amaierako lanen kalitatea ebaluatu eta sarituko da deialdi honetan, sinesten dugulako unibertsitate-irakasle batek bermaturiko lanak kalitate ona duenean ikertzaile hasiberriaren oinarriak sendoak izango direla.

Deialdi honetan, gradu- eta master-amaierako lanen egitasmoak onartuko dira, geroko tesiak bultzatzeko helburuz. Nolanahi ere, unibertsitate-irakasle doktore batek bermatu behar du lana.

PROZEDURA

- 2023an, **1.500 euro gordineko zazpi diru-laguntza** esleituko dira.
- Deialdira aurkeztu daitezkeen egitasmoak 2022-2023 ikasturtean defendatuko diren lanenak izango dira.
- Aritu edota doktorez osaturiko hautaketa-batzordeak balioetsiko dituzte egitasmoak. Baremoak zehaztu ondoren, puntu gehien duenetik gutxienera doan zerrenda egingo du. Horietan puntu gehien lortzen dituenak irabaziko du saria.
- Saria eman gabe gera daiteke, egitasmorik aurkeztu ez delako edota aurkeztu direnek saririk merezi ez dutela erabakitzen bada.
- Deialdi honetara aurkeztutako lanak argitaratzeko eskubidea izango du Euskaltzaindiak, idazlanaren pasarte bakarra izan edo idazlan osoa izan.
- Deialdi honetara aurkeztutako lanak Azkue Biblioteka eta Artxiboan gordeko dira. Aldiz, lanak argitaratu gabeak diren artean, haiek kontsultatu ahal izateko lan bakoitzaren egilearen baimena beharko da.
- Egitasmo sarituaren egileak lanari buruzko artikulua bat (gutxienez 30.000 eta gehienez 60.000 karaktere) Euskaltzaindiaren *Euskera* agerkari ofizialean idazteko konpromisoa hartuko du.
- Dirulaguntza jasotzeko ez du inolako kontratu edo estatutupeko harremanik sortuko Euskaltzaindiarekin.
- Deialdira gradu- edo master-amaierako lan baten egitasmoa aurkeztea aski da, lanaren egileak deialdiaren prozedurari dagozkion puntu guztiak onartzen dituela baieztatuz.
- Datu Pertsonalak Babesteko Arautegia –Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2016/679 (EB) Erregelamendua, 2016ko apirilaren 27koa– betez, datu pertsonalen

tratamenduari dagokionez pertsona fisikoan babesari eta datu horien zirkulazio askeari buruzko arauak ezartzen dituenen ("DBEO") eta Datu Pertsonalak Babesteko eta Eskubide Digitalak Bermatzeko 3/2018 Lege Organikoa ("DPBEDBLO") aipamen berezia eginez, deialdia honetara aurkezten diren pertsonen datuak Euskaltzaindiaren tratamendu-sistemetan jasoko dira, bera baita tratamenduaren erantzulea.

ESKAERAK

- Eskakerak deialdi honekin batera doan eskaera-inprimakia betez aurkeztuko dira.
- Hirutik bost orrialdera bitarteko txostenak aurkeztuko dira gradu- eta master-amaierako lanen egitasmoak azaltzeko. Edukia hauex izango da:
 - Sarrera, justifikazioa edo gaiaren interesa.
 - Hurbilpen teoriko laburra.
 - Helburuak.
 - Metodologia.
 - Bibliografia laburra.
- Lanen egitasmoak PDF formatuan eta e-postaz bidali behar dira ondoko helbide elektronikora: mintzola@euskaltzaindia.eus.

EBALUAZIO-IRIZPIDEAK

Lanen egitasmoak honako irizpide hauei jarraituz ebaluatuko dira:

- GRALaren/MALaren kalitatea: ikerketa-gaia eta helburuak ondo zehaztuta egotea. Metodologia egokia izatea eta ondo garatuta egotea. Egitasmoa argi eta ondo idatzita eta egituratuta egotea.
- GRALaren/MALaren garrantzia eta originaltasuna: lanak jakintzari egindako ekarpena, maila teorikoan zein metodologikoan egindako berrikuntzak. Ikuspegi interesgarria eskaintzea eta etorkizunerako lan ildoak irudikatzea.
- Euskarazko lanak lehenetsiko dira.

DATAK ETA INFORMAZIOA

- Eskakerak eta lanen egitasmoak aurkezteko epea: **2023ko martxoaren 31ra arte**.
- Hautatuen izenak eta ordezkoen zerrenda argitaratzeko eguna: 2023ko apirilaren 30a, beranduenez.

- Egitasmoaren araberako ikerketa-lana eginda entregatzeko mugaeguna: **2023ko irailaren 29a.**
- Ordainketak: sarituen zerrendak argitaratutakoan, eta betiere, 2023ko maiatzaren 15 baino lehen.
- Euskaltzaindiaren atarian (www.euskaltzaindia.eus/mintzola) argitaratuko da deialdiari buruzko informazioa zein deialdiaren urratsen berri.
- Deialdiaren inguruko alderdiei buruzko galderak honako helbide elektronikoa honetara bidali behar dira: mintzola@euskaltzaindia.eus.